



Iruzkinak

Patri URKIZU, Historia txipiak (des)eraikitzen

Aspaldixko bada ere, 1995eko irailean Koldok nire nobelatxo baten aurkezpena egin zidanez gero Lezoko Udaletxeko aretoa jendez blai zegoelarik, alegia, *Zoazte hemendik* titulua emanaz nobelatu nuen nire aitaren gerra eta exilioko oroitzapenak, sentitzen dut zorretan nagoela berarekin eta ezin dezakedala hemen bere narraziorako (eta poesiarako) dohain apartak goraiatu besterik egin, azpimarratu.

Alabaina ez du honek esan nahi ez dezakedanik kreatzaileak eraikitzen duen mundua aztertu, hezur eta mamiak ikertu, eguteraspelak arakatu, nondik norakoak argitzen ahalegindu, estiloa eta hizkeren itzal-argiak azaldu eta dastatu. Has gaitezen bada gure kriseilua bederatzi ipuinek osatzen duten ***Franco hil zuten egunak*** (Susa 2016) liburura inguratuz, txokoak argitzen eta gozatzen.

Hasteko liburu azalaren aipamena egin behar dugu, zeren eta txuribeltzean dagoen argazkia AHM-ren (Altzako Historia Mintegia) fototekatik jasoak Pasaiako portuaren Aduana aurkezten baitu. Bertako dorrea eta erlojua, jadanik desagertua, eta goardia zibil bat paseatzen bere itzala proiektatzen delarik horman. Garabi erraldoi bat eta almagaren gainaldean fardo zilindriko mordoa pilaturik Errenteriako *Papelera Española*-rako bidea egin zain. Wagoien burnibideak bata bestearekin gurutzatzen eta garabien burdinezko kutxara ahoak etzanik lurrean. Urrunago hiru gizon bizkarra emanaz, bi eserita eta bat zutik.

Barrenera igaroz tituluak badauka luzamendu bat, *Franco... eta Basques Harbour-eko beste kontu asko* dena, bai *non dago basques harbour eta beste madarikazio batzuk* poema liburua oroitarazten diguna (Susa 1997) bai eta *Sua nahi Mr. Churchill? eta Basques Harbour-eko beste kontu asko* (Susa 2005).

Halaber zazpigarren orrrialdean manifestutzat jo dezakegun ohar laburra ematen zaigu, hots, ipuin hauek gure *historia txipia* kontatzen dutela. Gertakari errealetan oinarritutako ixtorioak direla, Koldok *literatura* besterik ez dielarik erantsi, dioenez, berak sortu, *bersortu* ditu agian litzateke egokiago esatea, pertsonaia horiek balio sinbolikoa ukan dezaten.

Basques Harbour ingelesezko erreferentzia honek badauka zerikustekorik euskaldunen historiarekin eta bereziki euskal marinel baleazaleekin, frantsesez Ternuako leku honi *Port aux Basques* baitzeritzaion, hain zuzen garai batean, eta frantsesez Martin de Hoyarزابalek (1579) idatzi eta Piarres Detcheverry edo Dorrec *Liburu hau Ixasoco Nabigacionecoa* itzulitakoan (Fauvet 1677) *Opor-portu* bezala deitzen baitzaio.

1 HONDARTZA

Hamabost urteko bi gazte, jo dezagun kontuan hartuta idazlearen adina 68ko *unodemayo*-an Pasaiaiko herritik Donostiako Kontxara doazela oinez futboleko hondartzan jokatzera Real Sociadadeko jubenetako ekiporako hautatu baitituzte.

Patxi atezaina da, sarezaina futbol argentinarreko komentariogileek esaten duten bezala. Portuan guarda eta kontrabandoan aritzen den erreketen baten semea da (Simon Arizkun), eta kontatzen digunez aitak etxean pistola bat gorderik dauka. Patxi *Plongeon* eginez esferoidea, baloiak gelditzen oso abila eta trebea da.

Kaxkagorri aurrelari, izerdilari hutsa da, bulkaldika, alegia, okalondoka eta beste erabiliz infiltratzen dakiena aurkarien artean, hots, sartzen dakiena defentsen artean. Ostikalari iaio amorratua. Honen etxean, aldiz, amak arrebak ekartzen dituen panfletoak ohe azpian gordetzen ditu eta kontzientzia politiko sendoa dute.

Bidean topo egiten dute Don Serapio apaizarekin, (*Don Serapio oso apez berezia izan zen*, dio, “Francisco Franco gure herrian”, *Sua nahi...* liburuan, 207. orrian), eta honek esaten die: *aizue, datorren igande arratsaldean, lauretan, bizikleta lapurtzen duten gizon batzuen abenturak botako dut*. Suposatzen dugu parroko aretoan. Eta noski, *ladrón de bicicletas*, gaztelaniaz, baina *ladri di biciclette* italieraz, hau da, Vittorio de Sicaren 1948ko filme ikusgarriaz ari zaigu. Neorreolismoaren ildo benetan hunkigarri eta iraultzailea Italiako zineman hasten duenetariko joera eta hainbat eragozpen gaindituz Espainiaratuko zena berandutxoago. *Cine de arte y ensayo* deitzen zena hasten ari zen garaia.

Berriketan igarotzen dute oinez doazen bitartean hontaz eta hartaz (neskatxak, idiarena, fimosia, politika...) eta noski futbolaz ere, nahasten dituzte portu inguruko hizkera eta baztandar semearen

nafar-lapurteran (*errateko maneran, bertzerik, pirrilaka, mister, plongeon, sloan, fixpray, vermouthe, atunburu alaena (aluita, alixa...), txapelokerrak, bota nazak hori...*) gaur ez baitabil trolebusik Errenteriatik Donostiara, Berratik Errotetara, hemendik Herrerara, aurrez-aurre Uria mendia daukatela eta honen magalean Trintxerpeko kaiak eta Ternua hotzean bakailau arrantzan zebiltzan arrantzaleentzat eraikierazitako etxe merkeak, *pobladoa...*

Donostiarako bidean bizpahiru aldiz goardia zibilek geldiarazten dituzte eta poltsetan daramatena erakustarazten dizkiete, *ustedeska*. Noski, Real Federación Guipuzcoana de Futbol-eko karnetek *salvoconducto* bezala balioko diete, eta sloan linimentuaren usainak eraginda berehala itxiaraziko kirol-poltsak. *Banco Guipuzcoano*-aren aurretik ere igaroko dira. Narratzaile finari ahantzi zaio bertako termometro erraldoia aipatzea, txikitan hainbeste txunditzen gintuena, agian metafora ederrik asma zezakeen...

Oihu batzuk, Libertad, Libertad, sirenak, tiroa iruditu zitzaion zerbait.

Donostiako eta inguruko herrietako bi gazteren solasak gaitzat harturik ingurune gogor eta zapaltzaile hartan zegoen errepresioz betetako giro ilun eta hitzerdizkako mundua sortzen eta sentiarazten benetan abila dugu Koldo. Urte haietako erreferentziak ekartzen dizkigu eta biziberritzen maisuki.



Donostiako Kontxan 68. urte inguruan

2. PAPERAK

Mila bederatzirehun eta hirurogeita hamarreko irailaren hemezortzian (1970-IX-18), VI. Munduko Pilota txapelketaren inaugurazio egunean Donostiako Anoeta Frontoian, Francisco Franco diktadorea presente zegoela Joseba Elo segi gudari ohiak bere buruari su eman zion eta goiko harmailetatik behera bota zuen Euskal Herriko egoeraren kontrako protesta gisara. Handik urte batzuetara *Quiero morir por algo* liburua idatzi eta argitaratu zuen (Plaza y Janés, 1977).

Donostiako garaiko kazetetan, zentsura zela medio, oso komentario laburrak agertu ziren kirol kroniketan, (ARBULU, “Triste incidente”, *Unidad de la tarde*, 1970-IX-19; Xabier de AVINARETA: “Un lamentable incidente frustró la brillantez de la ceremonia”, *La Vanguardia Española*, 1970-IX-19; Juan FONTANET, “Leve mejoría del herido”, *El Mundo Deportivo*, 1970-IX-19...), aldiz fotografia ugari diktadoreak pilotariei eskua emanaz, artean Arturo Gil de Balmes Espainiako Federazioko buru zela. Narrazioaren arabera badirudi honen idazkari zen eta **Martin de Muñagorri** bezala sinatzen zuen

kazetariak, hau da Juan Pedro Iraola Trecet-en izengotia, urte batzu geroago, Franco hiltzear zegoela bere buruaz beste egin zuela Kursaalera zubitik botata, Ziburun egun batzuetara gorpua agertu zelarik.

Egia da ez dugula garaiko pilota kronikagileen artean (Juan de Eguizale, Xabier de Aviraneta, Arbulu eta beste...) Martin de Muñagorri pseudonimoa aurkitu, zeina X. de Aviraneta bezala Barojazale amorratua dirudien eta aho bero astero biltzen omen zen *Arbolape* elkarte gastronomikoan. Eta hiriburuko zirkulu literarioetan ezaguna, *dibagaxioa eta hiperbolea* zituelarik oso gogoko bere solasetan. Beraz, Koldoren joko literariotzat jo dezakegu eta Aviraneta Muñagorri bihurtu digu, antza, eta Gaztelubide, Gaztelupe *Arbolape*.

Frantsesez *fait divers* bezala izendatzen dutena, krimen eta heriotze ixtorio baten gisara aurkezten digu modu misteriotsu bat zabalduz, ez baitakigu zein den benetan suizidatu zen kazetari hori, eta aski sineskaitz egiten zaigun beste ilun-giltza sartzen baitizkigu korapiloan, hau da, Muñagorrik idatzia ziola Elosegiri hitzaurre bat.

Hona bada nola gurean bertsoan hasitako jeneroa, — urkaberako baladak, alegia, zeinaren figurarik nabarmenena Joanes Etxepare Donapaleuko koplaria izan zen XIX. mendearen bigarren partean —, XXI. mendean ageri zaigun hitz lauz eta ipuinlari fin baten estilo barroko eta era berean zirtolarian.



Joseba Elosegiren liburuaren azala (1977)

3. LARBI

Gregorio Azkarate Larrinaga gazte eibartarrari soldadoxka Afrikan egitea suertatu zaio 1975ean, hau da, 1958ko Ifniko gerratik hamazazpi urte geroago. Bertan Jon Larrea Calafel marrazkilaria topatzen du. Getafeko aideportutik ateratzen dira Hercules C-130 batean Saharako desertu erdian dagoen Al- Ayyun-era (El Aayún gaztelaniaz). Azkaratek bere mendebaldeko hizkera berezian (*hartzen be, emon zion, baltzarana zenez, errementau, hik zelan aguantetan duke (!) hemen, bape konprenitu, tximutx, mailubi, ...*) kontatzen dizkigu ixtorioaren pasadizo ezberdinak, soldaduen bizitza kuarteletik tabernara eta tabernatik *faneketara* — gauez egunez baino gehiago harrapatzen den arraina—. Noiz behinka ere andregaiaren gutunaren bat ere badaukate jasangarriago egiteko hango bizimodu arriskutsua, Cetme, Land Rover, kamioi eta maniobren artean. Euskaldunek eta kanta zekiten batzuek Boga, boga kantatzen dute tradizio zaharrari

jarraikiz, kastellanoek, aldiz, ia batere arrakastarik gabeko *La Loren tenía un conejo*... kanta zatarra...

Ohar labur batez euskal literaturaren tradizioan Afrikako gerrek izan duten oihartzuna presentatu nahiko nuke hemen. Antonio Zavala izan da gurean bertso biltzailerik handiena, eta besteak beste, hor jaso zizkigun *Afrika'ko gerra (1859-1860)* titulupean hainbat bertso, idazle eskolatu eta eskolatugabeenak ere, dioskunez: “Bertsosail batzuek, erdiak-edo, egille ez-ezagunarenak dira. Baiñan besteak aita nor duten badakigu: bertsolariak jarritakoetan, Alzo'-ko Imaz, Zubiria, Elgoibar'ko Etxaniz, Durango'ko Pantxillon; ta gizon eskolatuak egindakoetan: Aita Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Ibazeta”. ... Baina garbi ageri zaigu gehienetan, XIX. mendean izandako kolonizazio gerra haien propaganda huts zirela bertsoak, XX. mendekok (1907-1927; 1958) hala nola Paulo Yanzik ipinitakoak kritikoak diren, eta debekatu egin zioten bertso paper gehiago inprentaratzea, militarren kontrako zirela eta (1922. *Bertso berriak*...) Oroitu gaitezke ere Francok bere altxamendua Errepublikaren aurka 1936an Afrikan hasi zuela, bertako gerran barrabil bat galdu eta... Beranduagoko ixtorioak kontatzen dizkigu Pello Artetxe “Urdaneta”-k *Nere bizitzaren gurdia* (Auspoa 305, 2007) hitz lauz eta bertso zenbaitez idatzian, eta Jose Migel Iztueta “Lazkao Txiki” (1926-1993) bertsolari ezagunaren soldaduxka Afrikan marrazki bizidunetan errekreatu zuen Koldo berak beste zenbaiten laguntzaz.

Eta Aljeriako gerraz mintzo bagara (1954-1962), hainbat lan eta bertso agertu ziren garaiko *Herria* aldizkarian, bai eta Mixel Itzainak zuzendu zuen *Eskual Herria: Bulletin périodique des Basques d'Alger* dena euskaraz zen bihilabetekarian (1958-59) eta geroago beren oroitzapenak plazaratu zituzten Txomin Peillenek (*Aljezairia askatuta*, 1982), Xipri Arbelbidek (*Gerlako tresna bizidunak*, 1986; *Euskaldunak Aljerian 1954-1962*, 2003), Jean Louis Davantek (*Aljeria*, 2014), eta bestek.

Hainbeste hil gertatu ziren gerra hauetan ezen edozein bazkalondotan gure familietan adindunekin solastatzerakoan gai errepikakorra gertatu izan den gizonen artean non egin izan dugun soldadoxka eta bertan gertatu abenturak kontatzea, eta neuk ere entzun izan diot nire lehengusu bati zein sarraski ikaragarri sufritu zuten 58ko gerran, eta zein ikuskizun gogorra zen, bera kamio gidari zelarik, jasotzea odolez eta zauriz betetako hilak pilaka bata bestearen

gainean kamioiaren atzekoaldeko bolketean. Gerra betirako gorrotatzeraino.

Irkaitzez, beraz, kontatuko digu Koldok Afrikan destinatua zeuden bost euskaldunek (Xabier Azkarate, Jon Larrea, Garate gernikarra, Petrirena lesakarra eta Lasa) nola igaro zuten gerra hura, *euskara sanoan adierazteko, aberriarekikoa amaitzeko geratzen zitzaizkigun zazpi hilabeteetan...* Kontradikziozko jardunean beren iritzi politikoei jarraiki, Maroko eta Espainiaren kontra ari ziren nomaden kausarekin bat baitzetozen, eta kolonizatuen alde paratze soldadu kolonoari zail egiten baitzaio.



Sidi-Ifniko gerra irudia (1957-58)

Bestalde anbientatzeko bizi zuten giro hura kontatzen dira ohiko basakeriak, adibidez, nola Aalisalemek hamabi urteko neskatu bat bortxatu duen, eta odol hustutzen ospitalera eraman behar izan duten, baina hori ez zaiela gaizki iruditzen soldadoei baizik eta begi bat urratuta lortu duela hazaina. Kontrajarria, aldiz, narratzaileak bere andregaiari, Amaiari, idazten dion gutuna daukagu, non *Amaia laztana* hamar aldiz errepikatzen duen, edota andregaiak *bihotzeko Jon-i* idazten diona. Gerra ezberdinen, Arjeliako, Saharako, Euskal Herriko kontuek, fellaga, cetme eta kalaxnikov fusilenak, Ibon Egañak komentatzen duen bezala (Deia 21017-I-21), diskurtso-geruzen polifonia jasotzen du Koldok, eta irakurleari konplizitatea eskatzen, elipsiak betetzea, hizkuntza literario bakana deskodetzea.

4. IRAUNTZA

Ni Labezomorro bat naiz. Dio narratzaileak une batean eta barne bakarrizketa etengabeen bere burua gaitzat hartuta, oroitzen da behin nola eskolan *Gaznápiro* deitu zion maisuak eta honekin batera giro kafkiano batean itxuraldaketan bageunde bezala arituko zaigu. Agirregomezkorta izango du bere lehen kontaktoa, Madrیدهko Unibertsitate Autonomoan ikasten ari dena, eta garaiko manifestazioen giroa, Garmendia eta Otaegiren fusilamenduen kontrako protesten berri ematen digu nahasirik ere nola Groseko auzoan, Carquizano kalean Jesus Maria García Ripalda hil zuten 75eko abuztu bukaeran. Hona dioena El País- ek (2015-VIII-30): *La tarde del 31 de agosto de 1975, García Ripalda portaba una pancarta contra la petición de pena de muerte contra Garmendia y Otaegui, presuntos miembros de ETA. Lo acompañaban unas 300 personas en uno de aquellos “saltos” breves, que se disolvían en cuanto aparecía la policía. Testigos de aquel “salto” aseguran que un policía de la brigada político social le disparó a los segundos de iniciarse, probablemente por ser el portador de la pancarta. Evidentemente, esos testigos nunca pudieron declarar [...]. El expediente aporta la versión policial que nunca pudo ser contrastada. “Los tres policías siguieron al grupo de 300 manifestantes por la calle Miracruz que portaban pancartas con propaganda subversiva, palos, con el fin de fijarse en los cabecillas. Pero al parecer el policía José Fernández Espejo fue reconocido por uno de ellos, que resultó ser García Ripalda, quien agredió a dicho policía soltando la pancarta y asiendo un barrote con las dos manos asestó un golpe al policía y acto seguido esgrimió una navaja con la que intentó continuar la agresión, por lo que el policía sacó su pistola sin que eso amedrentara al agresor, quien soltando la navaja se enzarzó en una pelea cuerpo a cuerpo con ánimo de arrebatarle la pistola, siendo en esa lucha cuando se disparó la pistola, causando la muerte de García Ripalda”, señala el auditor militar.*

Sineskaitza da erabat poliziaren bertsioa. Hogeita hiru urte zituen García Ripaldak. Eta oroitzen dut nola ziren garai hartako korrikak eta oihuak. Noski, ez zen ez makilarik, pankartarena ezik ez eta ganibetik. Groseko elizan hileta elizkizunik ezin egin, eta neronek hitz egin nuen Lezoko Aperribai apaiz gaztearekin eta solas baten ondoren lortu genuen erahilaren arimaren alde meza ospatzea eta manifestazioa egitea herrian zehar hilketaren kontra. Garai horietako hilketak, hau tartean, oraindik asko ez dira behar bezala oraindik

argitu zeren eta Ferrolen gordeta dauden Artxibo Militarrak badirudi ezin daitezkeela ikertu.

Koldoren ixtorioan gertakizun hau esango nuke ez dagoela, garaiko giro kafkiarra sortzen abila izan arren, behar bezain argi esplikatutik.



El Diario Vasco, 1975-IX-2

5. UNE BATEN ARGAZKIA

Paulino Uzkudun (Errexil 1899 – Madrid 1985) jakina denez boxeolari ospetsua izan zen. 1924ean Espainako kanpeoia izan zen pisu astunetan, gero Europakoa (1926an Bartzelonan Erminio

Spallaren kontra, 1928an Donostian Ludwig Haymann-en kontra eta 1933an Madriden Pierre Charlesen kontra. Ameriketara jauzia egin eta konbate batzuek Harry Wills, Myckey Walker, George Godfrey eta Paul Berlenbachen kontra egin ondoren Max Baer, Max Eschmeling eta Primo Carneraren aurka honekin puntoetara galdu zuen Erroman, baina 1935eko abenduaren 13an New Yorkeko Madison Square Garden-en Joe Louisen aurka buruz-buru borrokatu zuenean K.O. bukatu zuen lehen aldiz Azken *matcha* izan zen beretzat.

Narratzaileak honela aurkezten digu, *Nor zen sudurmotz bura, Paulino, Paulino handia, Pollitenako zamaak bezain zuri, zintzurpean mitxirrika beltza dotore lotua...*

Geroxeago New-Yorkeko konbate ospetsuaren zatiak ingelesez ematen dizkigu: *Ladies and gentlemen, ..., the basque woodchopper, ..., One, two, three, four, ..., Five, six, seven...* Baina ez da ingelesez soilik mintzatzen, noiz behinka ere sartzen ditu Koldok galizierazko zenbait esaldi: *Ti non és...*

Uzkudunen alde iluna ere agertzen digu, alegia, nola entrenatzen zen presoek joka, Donostiako zezen plazako ukuiluetan. K.O. -a izan eta hamar urte geroagokoa da Rafael Artista Fotografo-k egindako argazkia *Boxing Club*-ean Paulino eta besteei, eta Koldori balioko diona garaiko mundu gogorra agertzeko.

Honi buruz badauka Jose Mari Iturraldeak eleberrigileak nobela bat, *Perlak, kolpeak, musuak, traizioak* (Pamiela 2015) non zenbait emakumez aparte Paulino Uzkudun eta Isidorro Gaztañaga gaizki bukatu zuten punta-puntako bi boxeolari euskaldunen ixtorioez. Urte batzuek beranduago ere halaxe izan zen Urtainen heriotza, zeren 1992an bere buruaz beste egin zuen, bankarruta eta beko erreka jota negozioetan balkoitik bota eta. Teatroak eta zineak ere gaitzat hartu izan du azken hau gaztelaniaz batipat, eta bertsolariak ere. Eta Anjel Lertxundik Urtainen aitaren bizimodua eta apostuak kontatuz haren alargunaren ikuspegitik idatzi zuen bere lehenarioko nobela: *Hamaseigarrenean aidanez* (Erein 1983).

Beraz, ikus dezakegu eman dutela boxeo munduak eta beste kirolek ere gure literaturan era ezberdinetako fruiturik, batzuek neorruralismotzat ere jo izan dutenak, baina KI-ren kasuan, garbi dago surrealismoaren eta abanguardien eragina. Eta batipat zinemarena, eta historia txipiok izan dutela kazetaritzan oihartzun aski handirik.



1922ko irudia. Paulino (the basque woodchopper) aizkorarekin enborraren gainean.

6. EHUN ETA HOGEI

Edo Francok zeroia, edo katxalotea, baleakumea ehizatu eta Pasaiako portura, MEIPIko moileetara ekarri zueneko. Mila bederatzi ehun eta berrogeta hemeretziko abuztuaren seian (1959-VIII-6) gertatutakoaren inguruan egituratzen du bere *historia txipia*. Seigarrena hau. Gertaeraren fotografiak ez dira falta, eta oroitzen naiz neronek ikusi nuela izugarrizko kiratsa botatzen zuen piztia anaia Josebarekin JAIKIBEL izeneko gure bateletik.

Bizkaiako kostatik, hau da Matzakutik (Ondarrutarrek dabilten hitza Matxikako esateko) zuzenean iparralderantz hogeit hamar mila itzura igoaz, *Bilboko Abraren bertikalean*, aurkitzen da Capretongoko amildegia non agertzen diren, uda honetan ikusi ahal izan dudana bezala, izurdeak, kalderonak eta baleak, edo historiako *zeroia*, hamasei metro luzedun eta hogeita hemezortzi tonakoa. (ikus www.verballenas.com) Gerrako destroyerak kainoiez hemezortzi kiloko arpoiaz tirokatu ondoren, Francok beti brankaren bertizean

ipinita bere fusilaz ehun eta hogeit hamar tiro banan-banan bota zituen, nondik historiaren deitura.

Jaime Quesadaren kronikan (*La Voz de España*, 1959-VIII-6) laguntzailea ez zen izan Koldok dioen bezala Max Bassols, Max Borrell baizik. Halaber Olazabal delako batek egiten duen kronikan (*El Diario Vasco*, 1959-VIII-6), deskribatuz borroka latza piztia eta gizonaren artean Max Borrell zela zioen Ehiztariaren laguntzailea. Eta *La Voz*-eko argazkilaria ez da Rafael Artista Fotografo, (birritan aipatzen dena, adibidez Uzkudunen argazkia dela eta), baizik *Foto Paco Mari*. Noski kreaizailearen lizentzien aurrean gaude.

Hixtorioaren bukaeran kontatzen digu Koldok nola dabilen Informazio eta Turismoko ministroa Donostiako leku enblematikoetarik (Aquarium, Náutico, Tenis Club), haserre ez zaiolako gustatu prentsak Francok *katxalotea* duela ehizatu ezarri duelako, gauza nobleagoak baitzituen arrantzatzen, ez *ballaena biscaiensis* delakoak (Galizian ere arrantzatzen baitzituen) hitz dotoreagoa duten zetazeoak baizik. Piztia eta Gizonaren arteko borrokan Kaudilloa garaile atera zenez.

Francok egin zituen beste ehizaldiak Kantauriko itsasoan bai Galizia aldean eta bai beste partetan eta 1963an Bermeon bukatu zen eta hemen kanta irrigaria eta guzti eskaini zioten: *Agostuen hamabijen / Franco Bermiora etorri. / Ekarri/ Katxalotie ekarri. Katxolotie ekarri. / Katxalotie... / Artzan usteldute itxi!! (Eta portua itxi).*



EL DIARIO VASCO, Donostia, 1959-VIII-6.

7. ATZEGUARDAKO LANAK

Bada perpausak lotzeko maiz errepikatu izan ohi den hitza, aski ezaguna dena eta erretorika liburuek polisindeton deiten dutena. Alegia, **eta** juntagailuaz ari natzaizue, zeinarekin behin eta berriro hasi ohi izan diren testu zaharrak. Halaxe ere XVI eta XVII. mendeetan egiten zuten aipatu ditugun Martin Oiharzabal eta honen itzultzaile zen Piarres Etxeberrik beren nabigazioko liburuetan, perpaus gehienen hasierak **jakiteko duzu** zirelarik. XX. mendean bada idazle italiano bat, aski nobelagile ona deritzaidana, Antonio Tabucchi (1943-2012) zeinaren eleberri batek honela duen titulua: *Sostiene Pereira* (1994) esaldi hau errepikatzen delarik maiz, epaitegi batean aurrean bailegoen. Koldok eman dion euskal bertsioa beste honakoa da: *Itaundu zitzaión...polizia galdeketa batean narrazioan murgiltzen gaituena.*

Errepikatzen den beste esaldia galizieraz dago: *a cona che che botou*, aldaeratzoren batekin: *a cona che lle(s) botou*. Euskaraz (*alu*) *putakumea*,

bezala itzuliko genukeena, ohiko iraina dena. Euskal literaturaren tradizioan izan dira hitz batzuk tabutzat hartuak izan direnak, euskararen jatorrizko garbitasuna zela eta. Hala *puta* ordeaz *emagaldu*, *pailarda*, *lilito* erabili izan ohi dira, eta Axularrek *puta seme deitzen dute* badarabil lasai asko, Manuel Lekuonak berak Axularren *Geroaren* berrargitarapena egiterakoan (Itxaropena 1954) Sarako apezaren *putaner* hitza honela aldatuko du: *p...*

Poliziak itaunketa bat egiten dio, baina bada aurrekaririk, alegia, Patxi Arizkun *Hondartza* historioan ageri zaigun atezaina, jada Lehen Mailako ekipoan, lehen dibisioan, jokatzuz eta Real Madridedeko Amancio jokalarri gailegoaren aurrean ikaragarritzko geldiketa eginez, bakarra izan da xingola beltzarekin agertu dena futbol zelaian, *bi lagun hil zitzaizkidalako*.

Historia txipia gerra zibileko historia tragikoaren kontuekin nahasten da, non balak egitearren elizetako kanpandorren brontzezko kanpaiak urtu zituzten, eta emakume zoro bat agertzen da maiz kaleetan zehar *gabari kendutako ilun zatia soinean*. Honek Telesforo Monzonen **ALARGUN ZOROARENA** poema gogorarazten digu (*Gudarien egiñak* 1947), *Bel-beltzez yantzzi, illeak aske utzi, / eguna gau egin ta gauz irrintzi...*

Eta barne-bakarrizketa etengabeari elkarrizketak nahasten direlarik, eta bidenabar Patxi atezainaren aitaren ixtorioa argitzen delarik zertxobait *itaundu zitzaion* errepika *eskatuko dizuet* bilakatzen da solidaritatea, elkartasunaren eskea luzatuz irakurleari, denoi, *pauso bat emateko aurrera*. Atzeguardako lanak. Eta geroago dioskun lez erretaguardiakoak zinta beltzarekin Txiki eta Otaegiren hilketaren ondoan (1975)



Aitor Agirre eta Sergio Manzaneda, Racing de Santander-eko jokalarriak

8. FRANCO HIL DA ENTZUN GENUEN EGUNA

Bazen Gross auzoan zine areto bat Franco hil zen garaian, non beti 3R edo 4 bezala katalogatuak ziren filmak botatzen zituzten. Alegia, pelikula bortitzak eta erotikoak sailkatzen zuten kategoria hauetakoak. Zinea Savoy zen. Orain auzoan gelditzen dena Trueba da, eta jatorrizko hizkuntzan dauden filmak, *arte y ensayo* deitzen genituen antzekoak maiz ematen dituzte, eta eskertzeko da kontuan harturik areto pribatua dela. Historia txipian Iñaki García protagonistak *Malizia* (1973), Salvatore Sampelli zuzendariaren filma Laura Antonelli duela protagonista ikusten du Savoy Zineman. Trueban *Perfume de mujer* (1974) Dino Risi zuzendariarena Vittorio Gassmanekin.

Imanol Txoperenak, beste protagonistak lortu du lana esatari gisara Donostiako Radio Popular-en eta galdeketak egiten dabil portu aldean, bai eta kaioen karraxiak, baporeen tutuak eta portuko beste soinuak (garabi, kamioi, fenwick (karro elektriko altxatzaileak), lokomotorak, txatarraren jausiak... Bitartean ematen zaizkigu ere Garcíaren eta Anita Alberdi, neskarik zeraren, neskarik kukuen, ilegorri denaren arteko, neska-mutil nobioen solasak ematen zaizkigu.

Urteotan Pasaiako portuan sartu eta kargatu edo deskargatu duten itsasontzien izenak ematen zaizkigu letra handiz:

MARIA SCHULTE PAPER OREAREKIN
GOTEBORGETIK
MONTE ALTUBE OLIOAREKIN LIVORNORA
ELKA KAHRS DENETARIKO ZAMAREKIN
ROTTERDAMETIK
CALIFORNIA KLINKERRAREKIN PUERTO DE LA
LUZERA
WEDFJORD PATATAREKIN DEN HELDERRETIK
ANGLIA ESPATO FLUORRAREKIN HAMBURGORA
EGHOLM TXIRBILAREKIN KOPNEHAGETIK
ADA FERRER MAKINARIAREKIN LONDONERA
TELANA XAFLEKIN NEWPRTEKIN
WARNA POTASAREKIN OSLORA
MONKSGARTH TXATARRAREKIN DETROITETIK
VOLTA SERVICE ZEMENTUAREKIN DAKARRERA
ASTEELY CARRIER ENBORREKIN ABIDJANETIK
CELLA VALDEMOSA POTASIO KARBONATOAREKIN
LIVERPOOLERA

BERSOE GRANITO BLOKEEKIN NARVIKETIK
SIERRA BLANCA KONTSERBEKIN BREMENERA
MITSOS ARDOAREKIN HELSINKIRA
MIRIAM DEL TORO BERUN MINERALAREKIN
KENTRATIK
NICOLE MAGNESITAREKIN BIRKENHEADERA
ARQUETAS FOSKATOAREKIN AL-AYYUNDIK



MONTE ALTUBE kargeroa

Hona bada hogei itsasuntzi kargeroen karga-deskargak zein diren, egun *import-export* esaten ohi dutena, non, zer, eta nondik norakoak argituak. Pasaia portuko beste garaiak ziren. Nire aitak, nire anaiak eta koinatuak bertan lan egin izan dute, eta bertara joaten nintzen gaztetan MEIPIRA jela eroatera eta San Pedroko lonjara arraina saltzera. Beraz izen guzti horiek ezagunak egiten zaizkit.

Bakoitzak xatal berezi bati ematen dio sarrera eta jarraipena, eta lehen historia txipian ageri ziren pertsonaia zenbait berragertzen dira. Hala Patxiren arreba Anita ilegorria Garcíarekin konprometitua eta maitemindua dagoena detenitu egiten dute eta ondorioz gurasoen etxea errejistratzen. Errejistroaren kontaketa ematen da. Panfletoak txikitu eta desagerrarazi dituzte eta material subertsibotzat hartzen dituzte, besteak beste, *Contes du Pays Basque* liburua. Aitaren protesta

irmo eta sendoa izango da: *ni nazionalista nintzen hogeita hamaseian eta nazionalista izanen naiz beti, jo nazazue hil arte baina utz ezazue nire alaba !*. Irakurleak berehala egin dezake euskaraz aritzen direnean esaten dutenetik *ez hitz egin zuen dialektoz*, —gaiztakeriaz eta mespretxuz poliziak— Europako hizkuntza zaharretik gaztelaniarazko bidea: *hablad en cristiano, no habléis en dialecto*, edota aitaren aldarrikapena: *fui nacionalista en el 36 y lo seré siempre, podéis pegarme hasta matarme, pero dejad libre a mi hija*. Edota lekukotzat hartu dituzten bi bizilagunen esaldia: *Son gente buena. No como vosotros*.

Ez da beste gairik falta, hala nola lan istripuak, Txoperenaren aitari gertatu zitzaiona bezalakoa, lan seguridade eskasen ondorioz, segurtasunezko loturarik gabe burdin saldaren gainean erori zenekoa, edota itsasuntzi baten ondoratzea erreparazioak behar bezala amaitu gabe eskifaiaren arrisku handiz faenatzera atera izan zirenekoa, edota apaizak bildu zirenekoa asanbladan erabakitzeke Diktadorearen hileta ondoren haren omenez elizkizunik ospatu behar zuten ala ez Don Serapio irteten delarik bakarrik kontra.

Ahots ezberdinen pilatzeak gehi deskripzioak batzuetan giro nahasi samarra sortzen dute eta zeintzuk diren istorio txipiaren ildo nagusiak argitzen zail bilakatzen duten arren, garbi dago Koldoren narratioek irakurle arretaduna eta historiaren gora-beherez, garaiko xehetasunez ongi hornitua eskatzen dutela.

9. O BURRO

Bederatzigarren eta azken historia txipi honetan pertsonaia nagusia eta narratzailea lehenbizikoan ageri zaigun bera da, Patxi Arizkun, sarezaia. Hau Anton Monteiro O Sporting do Ferrol-eko kapitain mitikoarekin biltzen da, honek inbitatuta. Eta berriro betiko galiziako nostalgiaz eta mintzairaz arituko zaigu giroa islatzearren: *Viva Galicia Ceibe, A cona que lle botou ! A bandeira da loita, A pulperia do Mateo, Viva o Racing de Ferrol sen Caudillo !*

Zeren eta oraingo okasioan Francoren zaldizko estatua kenduko dute Plaza de Españatik, Xaime Bello BNG-ko alkateak eta udaletxeak hala erabakirik, 2002ko uztailaren 5ean, *El Paíseko* Primitivo Carbajo kazetariak (historian Carlos Barroso kazetaria) ematen zuenez *O burro* hil eta hogeita zazpi urte geroago, eta ...*garabiak jasotzen zuen kaiola batean preso ikusi dugu diktadorea...* Irkaitzez mendekatuko zaigu idazlea. Eta jeneralisimoa daraman zaldia, herriaren ahoan *o burro* da bilakatua.

Baina sinbolo hura handik kentzearen eta Gerrako Museora eramatearen arrazoi sakona, ez zen agerian zegoena bakarrik, baizik eta monumentua destorbua zelako ere behean egiten ari ziren parkinerako, Anton Monteirot argitzen duenez...

Beraz, azkenean kontatzen zaigu okasio hori, 2002ko uztailaren 5eko gau hori, nola bizi izan zuen Patxi Arizkunek Antonio eta gazte garaiko beste futbolari ohiekin. Eta gogoratzen du itzultzeko hegazkina hartu aurretik zein memento bizitu zuen Amancio Real Madriden jokatzeko aurrelari gailegoaren aurrean. Erasotzailearen aitzinean sarezinak daukan bakardade sentimendua azpimarratzen digu, beldurra somatzen, usnatzen uzten gaituelarik.

Garbi dago, dena den, narratzaileak pertsonaien izenekin jolasten duela, zeren Patxi Arizkunek izenik ez da ageri *Sporting do Ferrol*-eko futbol ekipoa interneteko kirol informazioetan, Zumalabe abizeneko andaluz bat baizik atezain.

Kreatzailearen askatasun jolasak eta solasak nabarmentzen dira ipuinotan. Libertimenduak eta ziriak. Kritikak eta jenio zorrotza.

Ea, bada, Koldo, zenbait kritikok badiosku Donostiako euskal burgesia hartu zuela gaitzat Ramon Saizarbitoriak bere *Martutene* nobela erraldoia burutzearren, hurrengoan heuk hain ongi ezagutzen duan Pasaia inguruko langiledi iraultzailearen mundua nobela eder eta mardul batean eskaintzen diguken, irakurle xumeoi modu errexago batez. Merezi dik ahaleginak, eta oraingo gazteek dioten eran ahal duk, badezakek eta.



El Ferrolen Francoren zaldizko estatua kendu zutenekoa

Azken oharra estiloaz eta hizkeraz

Beste hizkuntzetako hitzez eta esamoldez hornituriko hizkera propioa osatu du Koldo Izagirrek bere narraziogintzan. Pertsonaiek jatorriaren arabera euskalki ezberdinetatik edaten dute eta bai bizkaierazko, bai lapurterazko /goi nafarrerazko bai Pasaia inguruko itsas hiztegitik hartutako hitzak ez dituzte eskas. Halaber gaiarekin zerikusia duten bai ingelesetik, bai frantsesetik, bai gaztelaniatik eta bai galizieratik ere hartutako mailegu eta esaldi ugariak solas aberats bat osatzen dute. Hona adibidez hitz zerrenda ez oso arruntaren argigarri batzuk:

FUTBOL MUNDUKOAK: *bulkaldika infiltratu*z (bultzaka etsaien artean sartuz), *Mister* (arbitroa), *pirrilaka* (pirrila (Lezo-Pasaia-Errenteria. LPE), 'gurpila', bueltaka), *plongeon* ("estirada"), *sarezaina* (atezain), *Real Federacion Guipuzcoana de Futbol* (tilderik ez du ezartzen).

BOXEO MUNDUKOAK: *Boxing Club* (Boxeo kluba), *esparrina* (esparring, kide entrenatzailea), *jaba* (eskumuturreko zuzena), *Madison Square Garden* (boxeotoki ospetsua), *nokeatzen* (K.O. uzten, zerraldo uzten), *uppercuta* (boxeoko kolpe berezia).

GERRA MUNDUKOAK: *Cetmea* (arma); *destroierra* (gerrauntzia), *erretreta* (erretiroa), *kalaxnikovak* (arma mota errusiarra), *paraka* (parakaidista).

POLIZIA: *Itaundu zitzaien...* (Hizkera judiziala), *txapelokerrak* (guardiazibilak).

HAUZOAK: *Pobladoaren* teilatuak (Trintxerpe)

PORTUA: *abante* (aurrera), *amantero* (karga-deskargak zuzentzen duen portuko langilea, estibatzailea), (*bagan*) *antxumatu* (paban inguratuz lotu, estekatu), *atoia* (remolke), *atoiari* (remolkadore), *atxamarta* (arrantzako aparejua), *bafora* (bapore), *faneka* (bakailau mota, metaforikoki *faneketara*, putetara), *gesal uberra* (itsasur zikina), *haga* (paba), *kamaina* (ohe), *minadraga* (itsasuntzi mota), *urindatzaille* (engrasadore), *tangart* (zurezko ur-ontzia, baldea), *zeroia* (balea mota)

HIZTEGI OHIKOA: *atzendu* (ahaztu), *bertze* (beste), *bizkarroi* (besteren bizkarretik bizi dena), *bonbila* (boteila), *burdinsalda* (burni urtua), *errekardari* (herriz-herriko saltzaile), *espetu* (esperatu, itxoin, itxaron), *fonderia* (fundizio, arragoa), *gilbor* (txilbor), *handizkako* ('al por mayor'), *irazeki* (biztu), *kauta* (*bere kautan*) (baitan), *konortea joan* (zentzua galdu), *larde* (beldurti, 'pudico'), *lekaio* (morroi), *luki* (azeri), *malats* (sasoitsu), *manifa* (manifestazio), *mitxirrika* ('pajarita'), *moteldua* (txapa doirik libratutako motelduak, txapa gainean juxtu utzitakoa, 'dejada'), *mustu* (lumadun, gay ?), *oratu* (lotu), *ortzegun* (ostegun), *poxelatu* (oztopoak ezarri), *prisioneroak* / *presonerak*, *progu* (dolu), *samalda* (multzo), *sapailo* (balkoi), *tamaldu* (nahigabetu), *txakurrak hormara* (horma idazkia: poliziak afusila), *tximutx* (tximitx, zimitz, 'chinche'), *txizagura* (pixalea), *txol* (erabat, txoil), *ube* (ubi, ibi), *umekondo* (haurtxo), *umotu* (ondu, zoritu), *xingola* (korbata, zinta), *zakatz-ak* (arrainen 'agallak'), *zamamendu* (kargamentu), *zemaiko* (zigor), *zimitorio* (eliz ataria), *ziririko* (su-ziri, koete)...

Hitz joko elebidunak: *Prentsamendua*, *ustedeska*, *unomayoak*

Izen mozorrotuak: *Arbolape elkarte gastronomikoa* (Gaztelupe, Gaztelubide (143) ?)

Aranismoak, neologismo garbizaleak: *Akeitetxea*, *ingi* (paper), *izparringi* (kazeta), *urrutizkina* (telefonoa)...

Mendebaldekoak (Gregorio Azkarate eibartarra): *Aguantetan* aguantatzen), *baltz* (beltz), *baltzarana* (beltzarana), *ei* (oi), *emon* (eman), *eroan* (eraman), *lakio* (oihu), *lako* (bezalako), *lez* (legez, bezala), *gura* (nahia), *putzitu* (puztu), *Matzaku* (Matxitzako)...

Adizkerak: *Konta nazak* (LPE, kontaidak orde, XVIII. mendean geroztik kostaldean). *Hik zelan aguantetan duk hemen?* (Nahasirik mendebaldekoa eta batua).

Mespretsuzko esaldiak: Donostiako *txatxu* horiek; *Patxi akerra ! (?)*

GAZTELANIAZKO HITZ, ESALDI, KANTA, TITULUAK:

Agrupación de tropas nómadas del Sahara, Banco Guipuzcoano, Diez melodías vascas, gafotas, gaznápiro, Libertad, Libertad, La Loren tenía un conejo, Perfume de Mujer, Presente, Quiero morir por algo, Su excelencia el Jefe del Estado, Viva España Arriba Franco...

PORTUGESETIK-GALEGOTIK: *A bandera da loita, A cona que che / lles botou* (tu puta madre / puta madre que los parió), *A pulperia do Mateo, Andrea corpiño xeitoso, Boa noite* (Gabon), *Desperta do teo sono, filho de Breogan, Exército Guerrilleiro, Follas Novas* (Rosalia de Castroren poema liburuaren titulua), *Godello* (ardo mota), *Grandola vila morena. Terra da fraternidade* (iraultza portugeseko kanta), *O burro* (astoa), *O Noso Sport, ti non és* (hi ez haiz), *saudades tenho neubem quando me lembro de ti* (zutaz oroitzean, maitea, suspirioak datozkit). *Viva Galicia Ceibe, carallo !* (Gora Galizia libre, cojones!), *Viva o Racing do Ferrol sen Caudillo* (Gora El Ferrol Caudillorik gabe)...

ARABIARRETIK: *Hassania* (arabiar hizkuntza), *jaima* (denda)

FRANTSESETIK: *Chercher la femme, Les Chants de l'Armée Rouge, Fatxo bat Franco a-ssa-ssin, Fraternité, Egalité, Mœt & Chandon, Voilà Fatumatu*

INGELESETIK: *femwicket* (karro elektriko altxatzailea); *go-go dancer* (gau dantzaria), *ballaren (erdian)* (sarrera gunea), *import-export, one, two, three...* (bat, bi, hiru...), *Shell Total Gulf Mobil* (Gasolina-gasoil tegia), *the basque woodchopper* (euskaldun aizkolaria), *what* (zer). Futbol eta boxeo kirolei dagozkion zenbait.

LATINETIK: *balaena biscayensis...*

Etabar